



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Musika eta Dantza Eskola

[www.donostiaeskola.eus](http://www.donostiaeskola.eus) | Tel. 943297830 | [info@donostiaeskola.eus](mailto:info@donostiaeskola.eus)  
Atotxako Zelaia Plaza, 3 | 20012 Donostia / San Sebastián

## **Mugarik Gabeko Musikariak, kontzertu solidarioa eta instrumentuen bilketa Siriarako**

*Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearekin batera, Mugarik Gabeko Musikarien kontzertu solidarioa antolatu du datorren azaroaren 25erako, Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunarekin bat eginez.*

### **Mugarik Gabeko Musikariak**

1995ean sortu zen irabazi-asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakunde gisa, independentea eta edozein ideologia politikorekiko loturarik gabea. Helburu nagusia haurrei laguntzea da, musikaren bidez, hizkuntza nazioartekoena baita eta haurtzarora du ardatz, egoera ahulenean dagoen biztanleriaren sektorea delako.

Musikak eta musikariek, munduan elkarrekin bizi diren etnien, herrien eta kulturen arteko harmoniaren, bizikidetzaren eta elkartasun-espirituaren alde, zeregin garrantzitsua dutela abiapuntutzat hartuta, musikaren eta haurren arteko elkartasunezko konpromisoa ezartzen saiatzen da, etorkizun hobea lortzeko laguntza materiala, premiazkoena eta kulturala, errentagarriena, emanez.

Egoera bereziko urte honetan eta erakundearen 25 urteko ibilbidea dela eta, Mugarik Gabeko Musikariak bi ekimen interesgarri jarri ditu abian, musikaren bidez batu, integratu eta egoera ahulean daudenak laguntzeko.

### **Kontzertu solidarioa**

Mugarik Gabeko Musikariek, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen antolakuntzarekin, kontzertu solidario bat eskeiniko du, ezarritako osasun-neurriak errespetatuz.

Azaroaren 25a, asteazkena, da aukeratutako eguna, eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunarekin bat eginez, musikak, gizartea integratzen eta garapen bidean dauden herrialdeetan emakumeak ahalduntzen laguntzeko duen garrantzia azpimarratuko da.

1981etik, Latinoamerikak azaroaren 25ean ospatzen du Genero Indarkeriaren Aurkako Eguna. Eskualdeko mugimendu feministek, emakumearen aurkako indarkeriaren tasarik altuenetako batekin, data hori aukeratu zuten Minerva, Patria eta Maria Teresa Mirabal omenez, 1960ko azaroaren 25ean Rafael Leonidas Trujillo diktadorearen aginduz erail zituzten hiru ahizpa. Urte batzuk geroago, 1999an, Nazio Batuen Erakundeak aldarrikapen egunarekin bat egin zuen eta azaroaren 25ean Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna izendatu zuen.

Entzunaldian estatuko eta nazioarteko 11 musika talde eta eskolek parte hartuko dute. Horien artean, aipatzekoak dira Guatemalako *El Reencuentro* kooperatibaren emanaldia, Roberto Narciso Chavarría egilearen Río Polochic obra joko dutelarik, Cabo Verdeko *Escola Municipal de Artes Tututaren* interpretazioa edo *Mirzo Music Center-ena* Kurdistandik.

Jesús María Alegría Urtiaga, Pinttu, Mugarik Gabeko Musikarien Zuzenaria, zuzenean izango da gurekin Gasteizko egoitza, erakundeak aurkezteko, esperientziak partekatzeko eta parte-hartzaileak agurtzeko. Gainera, Oihana Maritorenak aurkezle lanak egingo ditu, ordu bat eta 30 minutuko iraupena izango duen ekitaldi batean.

Kontzertua doakoa eta sarrera librekoa izango da. Donostiako Udalaren Musika eta Dantza



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

Musika eta Dantza Eskola

[www.donostiaeskola.eus](http://www.donostiaeskola.eus) | Tel. 943297830 | [info@donostiaeskola.eus](mailto:info@donostiaeskola.eus)  
[Atotxako Zelaia Plaza, 3](#) | [20012 Donostia / San Sebastián](#)

Eskolako kanalaren bidez eskeiniko da zuzenean, azaroaren 25ean, asteazkena, 18:00etatik aurrera, honako helbide honetan: <https://youtu.be/lkQ549gF7rA>. Eskolatik, parte hartu nahi duen oro animatzen dugu, ekimenarekin bat egiten, mugez haraindiko sare solidario bat sortuz.

## **Siriarako tresnen bilketa**

Bigarren urtez eta aurreko edizioaren emaitza onak kontuan hartuz, non 200 instrumentu baino gehiago eman ziren, Mugarik Gabeko Musikariek, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen laguntzarekin, Siriarako musika-tresnen banku bat sortu dute.

Instrumentuen bankua zabalik dago Siriako Musika Eskolekin lankidetzan aritzeko musika-materiala eman nahi duten enpresa eta partikularren dohaintzearako.

Herritarrek, orkestra sinfoniko baten parte diren instrumentu zaharrak edo horien zatiak (arkuak, bizarrak, sokak, etab.) eman ahal izango dituzte, baita teklatuak, pianoak, gitarrak eta akordeoiak ere.

Instrumentuak musika ikastera bideratuko dira, Siriako Musika Eskoletan emandako hezkuntzaren bidez. Baliabide gutxi dituzten pertsonak artean murgildu eta, horrela, gerrak eragindako izugarrikeriak ahazteko erabiliko dira.

Era honetan, musika, baliabide gutxiko adingabeentzako ibilgailu integratzaile bihurtuko da herrialde behartsu batean.

Dohaintza egitera joan aurretik, eman beharreko tresnari buruzko ahalik eta informazio gehien bildu, hau da, datu tekniko eta historiko, konponketak eta abar. Dohaintza-inprimakia eta zure tresnaren historia bete beharko dituzu eta.

Dohaintzak egiteko epea 2020ko azaroaren 25etik 2021eko urtarrilaren 29ra artekoa izango da, 14:00etan.

Instrumentua ezin bada eraman tamaina handikoa delako, entrega hitzartu ahal izango da, [ehme@ehme.eu](mailto:ehme@ehme.eu) edo 605709530 telefonoaren bidez.